

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Beatriz Ugarte Garitaonandia*

*Oñati,  
Gipuzkoa  
(1961)*

Aurkibidea



## Biografia



Murgia auzoko Azkarreta baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama San Prudentziokoa. 8 senide ziren (5 mutil eta 3 neska), baina mutiletakoa bat umetan hil zen. Beatriz azkenaurrekoa da. Berezaoko auzo-eskolan ibili zen umetan, eta gero herri eskolan. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Marije](#) ahizparekin eta auzoko [Karmen Inza](#)rekin batera. Etxean jaso zuen hika. Arantzazu auzoan bizi da.

## Zintak

### ONA-254

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-02-14
- **Iraupena:** 111 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

## Pasarteak

### 1. Nola jaso duzue hika?

- **Erref:** ONA-254/007
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:13:01. **Bukatu:** 00:17:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Etxean hika entzun dute betidanik, izan ere, mugimendu handia zegoen euren baserrian. Aitaren lagun eta senide asko joaten ziren bertara denbora pasatzera, eta haiekin denekin hika egiten zuen. Marijeri eta Beatrizi hasieran zuka egiten zien, gero dena hika. Amak ere hika egiten zien. Senideen artean gehienekin hika egiten dute, gazteenarekin izan ezik.</p>

## 2. Hika eta idatzi gabeko arauak

- **Erref:** ONA-254/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Idatzi gabeko arauak daude hikaren erabileran. Marijeren iritziz, txikitan zuka egiten zitzaien umeei, baina behin 6 urteak bete zituztenean (Jaunartzea egitean), hikara pasaten ziren gurasoak. Beatrizek haren alabari ez dio hika transmititu. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 3. Eskolek asko erdaldundu zituzten gazteak

- **Erref:** ONA-254/010
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Kolegioek eragin handia izan zuten mutilengan, eta asko erdaldundu zituen. Marije eta Beatrizek auzo -eskolan ikasi zuten, eta eskolatik atera bezain pronto, euskaraz eta hika egiten zuten. Maistrak zigortu egiten zituen euskaraz egiteagatik. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 4. Kanean bizi ziren auzotarrak lagun

- **Erref:** ONA-254/011
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Auzotik kalera jaitsi zen familia bizitzera. Bertan, ordea, auzotik jaitsitako gazte guztiak bildu eta lagun-taldea egin zuten. Hika hitz egiten zuten haien artean. Ahizpa moja joan zen eta moja nagusiari hika egitetik berorika egitera pasa behar izan zuen. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 5. Mutilarteko hika biziago

- **Erref:** ONA-254/013
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:24:46. **Bukatu:** 00:26:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Familian eta etxean hika egiten dute, baita euren adineko gertuko jendearekin ere. Mutilei samurrago egiten die hika Marijek. Mutilen arteko hika biziago dagoela uste du. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 6. Kale-giroan hika gaizki ikusirik

- **Erref:** ONA-254/014
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:26:33. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

### Laburpena:

<p>Eskolan auzoko umeek egiten zuten hika, eta, bartezen ere, mutilen artean erabiltzen zen. Hikak ez zeukan inongo prestigiorik, eta ez zegoen ondo ikusirik. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

## 7. Laudioko euskararen egoera

- **Erref:** ONA-254/016
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:32:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

### Laburpena:

Marijek, lana dela eta, Laudioko egoera soziolinguistikoa ongi ezagutzen du. Oñatin kasu batzuk dauden bezalaxe, Laudion bada belaunaldi bat euskara transmititu ez zaiona, gurasoek erdararik jakin ez, eta seme-alabek dena erdaraz egiten dutena. Hizkuntza ohiturak aldatzea oso zaila da. Oñatiko hitanoa.

## 8. Hika norekin erabili izatea da gakoa

- **Erref:** ONA-254/017
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:32:51. **Bukatu:** 00:34:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Beatrizek ez dio alabari hika transmititu, gurasoei egiterik ez baitie, eta haren lagunenartean hika ez dute erabiltzen. Hika jakitea kontu bat da, eta hika norekin hitz egin edukitzea beste bat. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**9. "Niri egin hika neskaren moduan!"**

- **Erref:** ONA-254/018
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:34:54. **Bukatu:** 00:37:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Nesken arteko hika gehiago galdu da mutilen artekoa baino. Ondorioz, mutilena bakarrik dakien jendeak, hori bera erabiltzen du bai neska bai mutilekin. Neskek, ordea, normalean bi formak jakiten dituzte. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**10. Zergatik galdu da gehiago nesken arteko hika?**

- **Erref:** ONA-254/019
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:37:19. **Bukatu:** 00:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Emakumeak beste fase batean egon omen dira beti, zintzoagoak, finagoak... izan behar. Hika ez zen dotorea gizartearentzat, eta hori dela eta, emakumeak hika egiteari utzi ziotela uste du Marijek. Beatrizek denbora askoan ez zuen norekin hika egin. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>

**11. Ezin hika egin**

- **Erref:** ONA-254/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:40:08. **Bukatu:** 00:41:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Beatrizek normalean zaharragoekin egin du hika, haren adineko inork ez baitzuen hika hitz egin. O&ntilde;atiko hitanoa.</p>



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com